

## GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA

### GIZARTE HEZKUNTZA ARLOKO ESKU HARTZEA ZORROARI BURUZKO DEKRETUAN

#### Gizarte Hezitzaileak zerbitzuen garapenean

#### GIZARTE HEZKUNTZA GRADUAN GIZARTE ZERBITZUEN LEGEA ETA DEKRETUAREN LANKETA

Gizarte Zerbitzuen 12/2008 legeak eta ondorengo 2015eko Gizarte Zerbitzuen eta prestazioen zorroak, giizarte zerbitzu euskal sistemaren zerbitzuak eta prestazioak erregulatzeko eta definitzeko dituzte, bertan gizarte langile zein gizarte hezitzaileak oinarrizko profesional bezala izendatzen ditu..

Gizarte Hezitzaileen Elkargoko eta EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko hainbat kide "Gizarte zerbitzuen dekretuaren garapenerako batzordea" osatu genuen, legearen zein dekretuaren barne Gizarte Hezitzaileen funtzioa aztertzeko asmoarekin, eta, ondorioz, horren sozializazioa bai elkargo kide, zein irakasle, eta ikasleriarri zabaldu eta gerturatzeko helburuarekin.

Lanketa horren emaitza izenburua hau duen dokumentua izan da:

#### **"Gizarte Hezkuntza arloko esku hartzea zorroari buruzko dekretuan. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema: Gizarte Hezitzaileak zerbitzuen garapenean"**

Dokumentua dekanotzaren babesa jaso zuen.

Ondorengo pausoak dokumentuaren sozializazioa elkargoko eta unibertsitatean burutzeko izan dira, eta gure Fakultatean irakasleekin eta Graduoko koordinatzailearekin lan saioak burutu ditugu.

Ondorengoak proposamen bat izan nahi du, ekarpen eta beharrezko moldaketek irekita, helburu argi batekin:

- **Prestatzen ditugun ikasleak, etorkizuneko gizarte hezitzaileak, gizarte zerbitzuen euskal sistemaren eta lan egintza duten zerbitzuen ezagutza areagotzea.**

Horretarako Graduoko hainbat espazio identifikatu ditugu:

1. Graduoko ikasgaiak
2. Disziplina arteko Lanak (DILAN)
3. Praktikumak
4. Gradu Amaierako Lana (GrAL)
5. Bestelakoak

Eta lanketa burutzeko materiala bildu eta antolatu dugu:


- Gizarte Zerbitzuen 2008ko Legea.
- Gizarte Zerbitzuen 2015eko zerbitzu eta prestazioen zorroa.
- Zerbitzu desberdinen definizio fitxak (dekretuan daudenak).
- Batzordetik eratutako dokumentua.
- Batzordetik eratutako aurkezpena (power point).
- Gizarte Zerbitzuen legea eta zorroa Eusko Jaurlaritzaren web atalean:  
<http://www.euskadi.eus/web01-a1gizar/eu/>

Proposamen zehatza ondoren azaltzen da:

## 1. GIZARTE HEZKUNTZAKO IKASGAIETAN:

Gizarte Zerbitzuen legea eta zorroa aztertu ondoren, harreman edo lanketarako aukerak ematen dituzten ikasgaiak zehaztu ditugu, agian ez guztietan, agian beste batzuk txertatuz, kontutan edukita ere, legearen zeharkakotasuna (haurtzaro, nerabezaro, familia, komunitatea, bazterketa, aniztasun funtzionala eta adineko pertsonentzat bideratzen dituzten zerbitzuak arautzen ditu), eta sekuentzia progresiboa.

Legeak eta zorroa eskaintzen dituzten zerbitzuak hartzaileen arabera antolatuta:



Iturria: <http://www.euskadi.eus/web01-a1gizar/eu/>

Ondorengo ikasgaietan lanketa burutzeko aukera proposatzen dugu:

MAILA	IKASGAIA	Nola?
1	Identitate eta garapen profesionala (2. lauhilekoa)	Legearen azalpen orokorra
2	Gizarteratze eta bazterketa prozesuak (1. lauhilekoa )	Gizarte-bazterketa/bazterketa arriskuarekin lotutako zerbitzuak
3	Komunitatea garapena (1. lauhilekoa )	Biztanleria guztiarekin eta komunitatearekin lotutako zerbitzuak
	Gizarte eta hezkuntzako esku hartzea familian, haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan (2. lauhilekoa )	Babesgabetasun arriskuarekin eta familia inguruarekin lotutako zerbitzuak
	Gizarte hezkuntzako esku hartzea pertsona helduekin, adinekoekin eta mendekoeekin (2. lauhilekoa )	Ezgaitasunarekin, gaixotasun mentalarekin eta mendekotasunarekin lotutako zerbitzuak
	Gizarte heziketarako esku- hartzea talde kaltetuekin (2. lauhilekoa)	Gizarte-bazterketa/bazterketa arriskuarekin lotutako zerbitzuak
4	Familia orientazioa (1. lauhilekoa )	Familiarekin lotutako zerbitzuak

## 2. DISZIPLINA ARTEKO LANAK:

Dilanak bideratuta daudenez ez ditugu proposamen zehatzik egin. Halere interesgarria izan zitekeen DILANen bat Gizarte Zerbitzuen analisia edo gerturapena izatea. Etorkizunari begira aukera ikusiz gero, kontutan hartzekoa.

### 3. PRAKTIKUMa:

Praktikumean Gizarte Zerbitzuen esparruko zerbitzu ugarietara bideratzen ditugu ikasleak praktikak burutzea. Burutu beharreko lanketan testuinguruaren azterketa burutu behar dutenez, espazio ezinbestekoa eta egokia azaltzen zaigu.

Aurretiko fasea:

PRAKTIKUM I-II-III	JARDUNALDIA (*)	Praktiken aukeraketarako eta zerbitzu-esparru desberdinen ezagutzarako bideratu duguna
--------------------	-----------------	----------------------------------------------------------------------------------------

Urtero praktikum I-II-III ikasleei zuzendua gurekin hitzarmena duten erakundeak gonbidatzen ditugu jardunaldi baten markoan, beraiek zuzenean zerbitzu desberdinen azalpena eta esperientzia profesionala ikasleei zuzenean gerturatzeko asmoarekin.

Aurreko ikasturtean lehenengo aldiz jardunaldi hau praktiken aukeraketa baino lehen burutu zen, ikasleen ekarpenak kontutan hartuz, beraien praktiken aukeraketarako baliogarria zelakoan.

Jardunaldia hurrengo ikasturtean praktikum I (3. mailan dauden ikasleei) eta praktikum II-III (4. mailan dauden ikasleei) burutu behar duten ikasleei zuzenduta dagoenez, hasierako hitzaldi edo sarrera moduan "Gizarte zerbitzuen zorroaren zerbitzuak" ere garatu daiteke; era orokorrean, gizarte zerbitzuen barruan dauden Gizarte Hezkuntzako esparruak aurkeztuz, eta ondoren hitzaldia eman behar duten hainbat zerbitzu kokatuz.

PRAKTIKUM I	1 fasean	Testuingurua: jardueraren aipamena eta kokapena
	2 fasean	Txostenean testuingurua kokatzerako garaian praktikak gizarte zerbitzuen esparruan badira, legearen aipamena eta harremana ezartzea.
PRAKTIKUM II-III	1 fasean	Testuingurua
	2 fasean	Txostenean testuingurua kokatzeko garaian praktikak gizarte zerbitzuen esparruan badira, legean eta zorroan kokatzea.
	3 fasean	Hitzaldia: ikasleen graduazioa gertu dagoenez, ebaluazio fasean hitzaldi edo mintegi bat antolatzea, gizarte zerbitzuen legean eta zorroko atal batzuetan sakonduz. Hala nola, generoarekin zerikusia duten zerbitzuak, larrialditako zerbitzuak ... beste ikasgaietan landu ez dena proposatuz, adibidez, edo txandakatuz ...

### 4. GRADU AMAIERAKO LANEAN:

- Ikasleei zein ikaslegoari bai legea, dekretua zein dokumentua helaraztea, beraien GraLa Gizarte Zerbitzuen esparruan bada, marko teorikoaren errebisioa burutzerakoan, horren azterketa egin ahal izateko.
- Legearen inguruko gaien bat proposatzea.

### 5. BESTELAKOAK

- Elkarguneak irakasleriarekin ( batzordea eratzea lanketa bideratzeko)
- Elkargune edo mintegiak ikasleriarekin.
- Elkargo eta instituzioekin batera jardunaldien antolaketa.
- (...)

Gizarte zerbitzuen dekretuaren garapenerako batzordea (Jesus Otaño, Fermin Martin, Axier Huegun, Ainhoa Martin)